

Kataluniako erreferendumari babesa agertzeko Bilbon manifestazioa

LABek eta ELAk uste dugu Euskal Herrian erabakitzeko eskubideak eskatzen duela berau bideragarri egingo duen estrategia, eta hau soilik aldebakarrekoa eta mobilizazioan oinarritua izan daiteke.

LABek eta ELAk dei egin dute datorren larunbatean, hilak 30, “Demokrazia; erabakitzeko askatasuna” goiburuarekin Bilbon izango den manifestaziora. Gure xedea da euskal jendarteak Kataluniako herritarrei itxurazko babesa adieraztea; izan ere, herritarrok uneotan eraso latza ari baitira pairatzen espainiar estatuaren aldetik, hau Generalitateko gobernuak urriaren 1erako deitu duen erreferenduma indarrez eragotzi nahian ari baita.

LABek eta ELAk uste dute honez gero gauza bat argi geratu dela: espainiar Estatuan ezin da erabakitzeko eskubiderik egikaritu, ez Katalunian, ezta Euskal Herrian ere. Beraz, eskubide honen alde gaudenok hura gauzatu ahal izateko estrategia bat definitu behar dugu, eta horrek eskatzen du prozesu sozial eta politiko bati ekitea; Katalunian gertatutakoa ikusirik, prozesu hori soilik konfrontazio demokratikoan oinarritua, aldebakarrekoa eta herritarren mobilizazioak bultzatutakoa izan daiteke.

Bi sindikatuok gure herriaren erabakitzeko eskubidea defenditzen dugu erreibindikazio demokratikoa delako. Baina gainera, langile-klaseak bizi duen egoera dela eta, beste eredu ekonomiko eta sozial bat eraikitzearen alde egin nahi dugu; horretarako ezinbestekoa da erabakitzeko eskubide betea izatea. Ez dago aldaketa sozialik aldaketa politikorik gabe.

LABek eta ELAk egiaztatu dute Katalunian elkarriketaren garaia iraganeko kontua dela, PPren gobernuak behin eta berriz entzungor egin baitie erakunde katalanei, hauek etengabe saiatuagatik ere. Kataluniak bere bideari jarraitu behar dio. Honi dagokionez, agerian geratu da alferrik aldarrikatzen dela espainiar Estatuarekiko ituna, honek ez baitu sekula erabakitzeko eskubidea aitortuko, ezta Euskal Herriari ere. Espainiar Estatuarekiko ustezko alde bikotasuna soilik modu batean da posible: soberanistek beren posizio politikoa baztertu eta inposatzen zaien inboluzioari men egiten badiote.

LAB eta ELAren iritziz, Euskal Herriaren erabakitzeko eskubidearen alde daudenek honako gutxienekoak partekatu behar dituzte: demokrazia sindikala bermatzea, langile-klaseak zilegizko moduan hautatutako gehiengo sindikala errespetatzen delarik. Halaber, jendartearen parte hartzea aintzat hartu behar da, eta ez hedatu mugimendu sozial eta sindikalei buruzko mesfidantzazko mezuak; eta noski, Kataluniaren aurkako errepresioa xaxatzen duten alderdi politikoezikiko harreman oro haustea.

LABek eta ELAk nahi dugu prozesu politiko hau, zeinaren une gorenetakoa bat urriaren 1ean izango den, ilusioa emango duen aukera bihurtzea.

Azken arrazoi hauek ezinbestekoak direla nabarmenduaz, LABek eta ELAk dei egiten diote langile-klaseari datorren larunbatean Bilbora joan dadin demokraziaren eta erabakitzeko eskubidearen aldeko manifestaziora.